

# ELKARTASUNA

## ZER EGIN?

### EKINTZA

*Irina naiz, kroaziarra naiz eta Zagreb-en bizi naiz. Kroazian, 1991n, 4.365.000 lagun bizi ziren: %77 kroaziarrek, %12 serbiarrek.*

*Geroztik, serbiar gehienek alde egin zuten Krajina-tik, kroaziarren beldur, gerra galdu zutelako. Imajinatzen duzu, gerra ostean, zein zail eta gogorrek izango diren orain bi gizatalde horien harremanak?*

*Iaz, Dublinera joan nintzen ingelesa ikastera. Bertan, Krajinan jaiotako mutil serbiar bat ezagutu nuen. Haren familiarekin batera alde egin zuen Kroaziatik Serbiara, etxea-eta atzean utzita. Beka bat zuen, lan-praktikak Eiren egiteko.*

*Hasieratik oso jatorra iruditu zitzaidan, nahiz eta bera, antza, ez zen nirekin fidatzen, seguraski gogoan zituelako gerra-kontu guztiak.*

*Hala ere, berehala ondo baino hobeto moldatu ginen elkarrekin, gertaera latz haiek alde batera utzita.*

*Gure familietako batzuk elkarren kontra ibili ziren gerran, eta orain ere elkar ezin ikusi bizi dira.*

*Zer egin dezakegu? Kroazia Europar Batasunean sartuko balitz, dena soluzionatuko omen litzateke. Ez dakit, bada...*

*Jugoslavia zaharreko estatu guztiak sartuz gero, errazagoa izango litzateke irtenbide egoki bat topatzea.*

*Gure aitak ez du nahi ni mutil serbiar batekin ibil nadin.*




*Zer egin dezakegu? Ni Serbiara joan? Mutilari Kroaziara etortzeko eskatu? Europar Batasuneko herrialderen batera emigratu? Lanik izango genuke? Zein herrialde izan daiteke egokia? Euskal Herrian zelan egongo ginatke?*

**Nahaste itzela da.**

**Lagunduko didazu arazo hau konpontzen?**

## GOGOETA

### GIZABIDEA



Kontatu didate New Yorken, Broadway eta 26. karrikaren kantoian, negu gorrian, gizon batek gauero jendeari otoi eskatzen, aterpe bat bilatzen duela bilutsirik daudenentzat.

Mundua ez da era hortan aldatzen, gizonen hartu-emanak ez dira hobekitzen, zamaroa ez da hola laburtzen, baina batzuek gau batez ohia dute, aterpean haize hotzik ez-eta, bereri zijoakien elurra karrikan ari da.

Liburuaren irakaspenik ez ahaztu, gizona, gizon batzuek gau batez ohia dute, aterpean haize hotzik ez-eta, bereri zijoakien elurra karrikan ari da, baina mundua ez da era hortan aldatzen, gizonen hartu-emanak ez dira hobekitzen, zamaroa ez da hola laburtzen.

*Kontatu didate... (Bertold Brechten olerkia, Mikel Laboak kantatua)*

**Zelan jokatu behar dugu? Lagundu, «zamaroak iraun dezan»? Ez lagundu, «bilutsirik daudenak» egoera aldatzen saia daitezten?**



## ZER EGIN? ONBERATASUNA

Bigarren Mundu Gerrate denboran alemaniarrek Soviet Batasuna inbaditu zuten. Orduan gertatu zen orain irakurri behar duzun jazoera latza.

Alemaniar talde bat sartu zen herrian zigor-lana egiteko asmotan. Aurreko egunean bi soldadu alemaniar hilik agertu ziren errepidean.

Gauean, herriko emakumeak bilarazi eta agindu zieten zulo handi bat egiteko. Zenbait soldadu emakume zahar baten isba-n instalatu ziren. Haren senarra polizia batek bulegora eramane zuen. Bertan bazeuden jadanik hogeiren bat nekazari.

Emakumea esna egon zen gau osoan. Alemaniarrek sotoan saski bat arrautza eta pote bat ezti topatu ondoren, berogailua piztu zuten eta tortilla bat egin zuten eta vodka edan. Gero haietako batek, zaharrenak, musu-soinua jotzen zuen bitartean, besteak, oinekin lurtean joaz batera, kantari aritu ziren. Etxeko andreari begiratu ere egin gabe egon ziren, emakumea, gizakia izan ordez, katua izango balitz bezala.

Egunsentian, metrailetak errebisatzen ari zirela, soldadu batek, nahi gabe tiro egin zuen bere sabelean. Ahal izan zuten moduan osatzen saiatu ziren eta oheratu zuten. Orduan denei kanpora ateratzeko esan zieten. Soldaduek emakumeari agindu zioten zauritua zaintzeko.

Emakumea berehala konturatu zen erraz ito zezakeela. Gizonak murduskatzen ditu berba ulertezin batzuk, begiak ixten ditu, negarrez ari da. Bat-batean begiak ireki eta garbiro eskatzen du: "Ama, edan nahi dut". "Madarikatu hori -dio emakumeak-, ito beharko zintuzket".

Ura ematen dio. Gizonak eskutik heltzen dio eta jesarri nahi duela adierazten dio; odolak arnas egitea eragozten dio. Emakumea altxatzen da eta gizonak besarkatu nahi du. Orduantxe entzun zuten tiro sorta bat eta emakumea guztiz ikaratu zen.

Vassili Grossman "Vida y destino" Barcelona, 1985. 367-8. orr.

**Zergatik jokatu zuen horrela emakumeak?  
Zure iritziz, ulergarria da emakumearen  
jokaera?  
Halako kasurik ezagutzen duzu?  
Jakin daiteke zelan jokatuko genukeen guk  
halako egoera batean?**

## GOGOETA ONGIA

Denboraren joanean jende asko ahalegindu izan da ongia zertan den ulertzen eta esplikatzen. Horietako bat duzu Vassili Grossman.

Munduan bizi diren izaki gehienak ez dira arduratzen "ongi" a definitzeaz. Zer da ongia? Norentzako ongia? Noren ongia? Ba al da ongi orokorrik, izaki guztiei, herri guztiei, zirkunstantzia guztietan aplikatzekorik? Ongia betiereko eta aldagaitza da? Edo agian, atzoko ongia gaurko bizioa da, eta atzoko gaizkia gaurko ongia?

Ongiaren eta gaizkiaren arazoa filosofo eta teologoei ez ezik, gizaki guztiei ere, ikasiei zein analfabetoei, planteatzen zaie.

Ongia ez dago naturan, ez profeten igarpenetan, ez gizarte doktrina handietan, ez filosofoen etikan... Baina jende xeheak bihotzean dauka bizi den guztiarenganako maitasuna, bizia berez maite dute, bizia babesten dute...

Gizabanako batek beste gizabanako batekin izaten duen onberatasun propioa lekukorik gabekoa da, ideologiarik gabekoa. Esan genezakeenez, pentsamendurik gabeko onberatasuna.

Zentzugabeko onberatasun hori da gizakiaren gizatasuna, harek definitzen du gizakia, eta giza espirituaren gorena da.

Onberatasun horrek ez dauka diskurtsorik, ezta zentzurik ere. Sendoa da, mutua eta inkonstzientea den bitartean, giza bihotz zolan bizi den bitartean. Bizia bezain sinplea da. Haren indarra gizakiaren bihotzaren isiltasunean datza.

Vassili Grossman "Vida y destino", Barcelona, 1985, 363-8. orr.

**Ados zaude Vassili Grossman-ek egiten duen  
ongiari buruzko gogoetarekin?  
Zure ustez, zer da ongia?**



# ELKARTASUN ZIRKULUAK




Litografia.  
Lagundu Espainiako haurrei. 1938.  
Institut d'Histoire Sociale, Gante

Zure esperientzia, irakurketak eta ikusitako filmak kontuan hartuta, eman zirkulu bakoitzeko gertaera edo adibide baten berri.



Homeless. Georg Grosz.



Spanish Civil War. Robert Capa. (1936-39)



Henri Cartier-Bresson. Frantzia, 1929.